

KMK 2015 USURBILEN

Jendartea zutoin sendoen gainean eraikitzeko herri oso baten ahalegina

 JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Eguna jarria dago; urriak 4. Helburu ekonomikoa, zehaztuta; dagoeneko egin dagoen eraikin berriaren karga ekonomikoa arintzea. Baina Kilometroak egun bateko festatik eta behar ekonomiko batetik haragoko gertaera da, herri oso bat pizten eta mugiarazten duena. Usurbilen kasuan, bost hankako mahaia da marraztu duten proiektua, bost zutoinen gainean aritu baitira urte osoan gogoetan eta lanean: hezkuntza, jasangarritasuna, parekidetasuna, inklusibitatea eta auzolana.

Egun mugituak dira Usurbil aldean. Ikastolan eta herrian, orokorrean, lan asko egin da 2015eko urriaren 4ra begira. Egun horretan herria eraldatu egingo da milaka lagun hartu eta etxean bezala sentiarazteko. Kilometroak 2015 proiektua bost zutaberen gainean osatu da, eraiki nahi den jendartearen zutoin izan beharko luketenak.

Hezkuntza, noski, horietako bat da. Mariaje Imazek, Udarregi

ikastolako zuzendariak, ikastolaren erronka pedagogikoen gainean hitz egin digu. Haur Hezkuntzan eta DBHn proiektu berriak eta berritzaileak daude martxan eta tarteko adin tartetan ere ez da falta proiekturik. Hezkuntza gauza bizia da, jendartearen eskaera eta beharrak une oro erantzuten asmatu behar duena, eta gurpil horretan doa Udarregi.

«Luberri izan zelako da gaur egun Udarregi ikastola». Baiez-tapen horixe jasotzen du Jexux Agirresarobek eta Aitziber Elor-

tzak ikastolaren sorrerari buruz egin duten dokumentalak. Auzonalaren arima modu argian eta argigarrian jasotzen duen lana da.

Horrez gain, hitzorduak «denon neurriko jaia» izan nahi du, eta horretan aritu dira buru-belarri lanean Guztion Gattunk Batzordean. Gainera, festa ahalik eta jasangarriena eta parekidea izatea ere bada helburua, eta horretarako baliabideak martxan egongo dira urriaren 4an. Erronka handiak dira eta bisitariak igarriko dio.

INGURUMEN ETA GARBITASUNEN BATZORDEA

«Aukera paregabea da ingurumen irizpideak lantzeko»



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Ingurumena-Jasangarritasuna KMK 2015 proiektuaren zutabeetako bat da.

Jaia ahalik eta modurik jasangarrienean garatzeko ahalegina egin nahi izan da, ingurumenari ahalik eta begirune eta errespetu handiena izanaz. Horregatik, Usurbilen hain zabalduta dagoen Zero Zabor eremuan txertatzea lortu nahi dugu.

Nola landu duzue balioa urtean barna?

Egunean ikusiko ditugun ekimenak proposatu eta lantzen aritu gara. Irizpide nagusiak zehaztu eta antolakuntzarekin partekatzen. KMK 2015 ekitaldiekin lotura duten praktika guztietan, publikoak zein pribatuak izan, ingurumen jasangarritasun irizpideak kontuan

hartzeko: erosketa arduratsua, energia kontsumoa, ura, hondakinak, garraioa, zarata.... lanean aritu gara. Bide horretan, 2015eko maiatzean Kilometroak Kultur Elkartek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Zero Zabor hitzarmen bat sinatu zuten. Bertan zehazturiko ekimenak diruz lagunduz murrizketa, berrerabilera eta birziklapenean pausoak emango dira.

Eta egunean bertan, jaiaren egunean, zer-nolako presentzia izango du?

Handia. Jasangarritasunean sakontzea jarri genuen erronka aurtengo KMK ekitaldirako. Beraz, orain arte ildo honetan egiten zirenak mantentzeaz gain ekarpen berriak egiten ahalegindu gara, eta horietako batzuk egunean bertan jarriko dira praktikan. Festara bizikletaz etorri nahi dutenentzat, Lasarte eta Zubietatik barna datorren bidea erabili ahal izango da. Bestetik, festarako kontsumigarriak, ahal izan den guztia, gertuko hornitzaileekin hitzartu da.

“Hondakinik onena, sortzen ez dena” dio leloak, eta horri heldu diogu lehenbizi, honako neurriak hartuaz:

-Freskagarriak ez dira aluminiozko latan zerbitzatuko. Sagardo, ardo eta txakolinaren botilak berreskuratu egingo dira.

-Iturriko ura kontsumitu dadin, herriko iturriak seinaleztatu, txosnetan iturri gehiago jarri eta bereziki sustapen mezuak zabalduko dira. Botilako uraren beharra multinazionalen artifizialki sortua da. Garestia da botilako uraren iruzurra. Iturrikoa baino mila aldiz gehiago ordaintzen da. Gainera, petrolioz eginda dauden plastikozko botilek gure airea, itsasoa, ibaiak eta lurra kutsatzen dituzte. Usurbilen badaukagu hori

ekiditeko aukera: iturriko ura, primerakoa, oso ona eta doan.

-Hiru gunetako hondakin organikoak, gune horietan bertan egokitu ditugun konpostaguneetan, une berean konpostatzen jarriko dira.

-Gune batean komun idorrak jarriko dira, inolako produktu kimikorik gabe: zerrautsa botaz dena konposta egiteko eramaten da. Horrela egiten dute Lekornen ospatzen den EHZ musika jaialdian. EHZko kideen laguntza izango dugu.

-Edalontziak berrerabiliko badira, berreskuratu egin behar dira. Ez da nahikoa edalontziak banatzea. Edalontziagatik deposituan utzitako dirua berreskuratu ahal izango da gune guztietan. Baina horretaz gain, bereziki festaren bukaeran, edalontziak itzultzeko eskaria egingo zaie festazaleei, eta baliabide asko jarriko dira ahalik eta edalontzi gehien berreskuratzeko. Horrela lortuko baita urteko edalontzi berri pila bat berriro fabrikatu beharrik ez izatea. Birziklapenari dagokionez, sortuko diren hondakinak ez nahasteko nahikoa baliabide jarriko dira.

KMK 2015 pasatuko da, baina gerora zuen lanak zein arrasto uztea gustatuko litzaizueke?

Usurbil azken urteotan hondakinen kudeaketari dagokionez aitzindaria izan da. Kilometroak gure herrian ospatzeak aukera paregabea eskaintzen digu ezinezkoa dirudiena lor daitekeela ikusarazteko. Jendetza elkartzen den ekitaldi batean jasangarritasun irizpideak garatu eta emaitzak lor daitezkeela. Hori da gure erronka.